

### **Diru iturriak:**

Azaldu bezala, gure proiektua bi fase izango diru, beraz, fase bakoitzea narrakastaz gauzatzko beharo dugun finantzaketa oso desberdina izango da.

#### **Lehen fasea: Taldea osatzea.**

Lehen fasearen eginkizun nagusia, eSportseko talde konpetitibo bat osatzea izango da, horretarako, maila nazioanalean hainbat lehiaketa egiteko asmoa dugu, non edozeinek parte hartzeko aukera izango duen, ordainketa txiki baten truke. Lehiaketarekin lortutako dirua lehiaketatik ateratako taldean inbertitzeko izango zen, entrenamenduetan eta lehiaketa garrantzitsuetan parte hartu ahal izateko prestakuntzan inbertitzeko erabiliko zen.

Bestalde, lehiaketa antolatzeko laguntza ekonomiko bat beharko genuke, horretarako, finantzaketa bide ezberdinak bilatu beharko genituzke.

Lehiaketa egiterakoan, diru sarrera nagusia publizitatearena edo patrozinadoreena izango litzateke. Hauek, bideo-jokoekin erlazionatuta egoteko aukera dago, adibidez, ordenagailu markak, bideo-joko empresak... lehiaketa horretan euren targetak parte hartzen duelako.

#### **Bigarren fasea: Talde konpetitiboa:**

Lehiaketa amaitu eta gero, gure helburu nagusia taldea txapelketa garrantzitsuetan parte hartzekoa da, taldeari fama gehiago emateko. Horretarako ere, diru sarrera ezberdinak beharko ditugu.

Lehen bezala, finantzaketa prozesuan garrantzia handia publizitateak izango luke, taldeak behar izango lituzkeen gastuak betetzeko (leku aldaketak, ordenagailuak, entrenamendua...)

Ez dugu ahaztu behar taldea txapelketa ezberdinetara bideratua dagoela bideratuta, gainera, nahiko konpetitiboa izateko pentsatua da. Txapelketen sari nagusiak diru kantitate handiak izaten dira, beraz honek ere taldearen garapenean lagun dezake.